

Euskera eta literatura

Aztarna epigrafikoetatik...

1. **Erromatarkuntza garaia** (k.a II- k.o V).
Tributan egituratutako lurraldea.
 - Baskoiak (Nafarroan).
 - Barduliarrak (Gipuzkoan eta Arabako zati batean).
 - Karistiarrak (Deba eta Nerbioi ibaien arteko lurraldean).
 - Autrigoiak (Santander aldean eta Enkarterrietan nagusiki).
 - Beroiak (Errioxa aldean).
2. **Erromatarren bitartez kultura idatziaren berri.**
3. Aldi hartako inskripzioetan: **antropónimoak, teónimoak eta leku izenak** (hilarriak, latinezko testuen barnean...).
4. X-XI mendeetan: **Kukulako Donemiliagako glosak.**
 - Erromantzez idatzitako beste askorekin batera (2 euskaraz idatziak).
 - Latinezko perpaus ilunak argitzea helburu.

Aho-tradizioaren testigantza idatzietaraino

1. XIV. Mendea. Ahaide Nagusien gehiegikeriak.
2. Aho-tradizioko literaturak gorde zituen garaiko gertaera latzak. **Baladak eta eresiak.**
 - 2.1 Gutxi eta ezezagunak. Kanta osoen zatiak.
 - 2.2 Dokumentu historiko gisa zuten balioagatik gordeak.
 - 2.3 XVI m. 2.erdian-XVII. Mendean bilduak.
 - *Milia Lasturkoaren eresia* (1584ean bildua.XV.mendekoa).
 - *Arrasateko erreketak* (1558-1610 jasoak. XV.mendekoa).
3. **Errefrauek.**
 - 3.1 XVI m. 2. Erdian -XVII.mendean bilduak.
 - *Refranes y Sentencias* (1596an bildua).

XVI.mendea (1545-1600)

1. Histori garaiaaren hasiera.
2. Lekukotasunak hobetzea.
3. Hizkuntz egoera.
 - Hizkuntza modernoaren piztea.
 - Balioespena. Hizkuntza klasikoaren mailakoa.
 - Lehen gramatika eta hiztegiak.

4. Euskararen egoera.
 - Apologiak (Poza, Garibai, Etxabe).
 - Dotrinak (Betolaza...).
 - Silabarioa. Irakurtzen ikasteko (Betolaza).
 - Koaderno pribatuak (Lazarraga).
5. Goi mailako letrak. Lehenengoz euskaraz.
 - Etxepare.
 - Leizarraga.

Errenazimendua

1. Aurreko kulturaren heriotza --- **bizitza sistema berri baten beharra**.
2. Teozentrismotik **antropozentrismora** .
3. **Arrazoiaren goraiatzea** fede hutsez sinesteko proposamen teologikoen aurrean.
4. Antropozentrismoak ez zuen ekarri gizaki guztien berdintasuna. Ahalik eta **pertsonarik osatuena** bilatzen zen.
5. **Natura** edertasunaren iturri. Bizitzeko forma naturaletara itzulera.
6. “**Carpe diem**”.
7. Alor artistikoan, Erdi Aroak sortutako guztia ukatu. Grezia eta Erromara itzulera : **edertasuna, lasaitasuna eta oreka**.

Inprenta Euskal Herrian

1. **Gutenbergek** asmatu zuen **1440-50**. Hamarkadan.
2. **1455ean lehen argitalpena** (Biblia). Euskarazko lehen liburua argitaratu baina mendebate lehenago.
3. **Euskal Herriko** lehen inprenta, **Iruñean** (1489).
 - Lizarra 1546
 - Tutera 1572
 - Iratxe, Fitero... Nafarroako Erresuma aitzindaria.
4. Gainontzeko euskal **hiri nagusietan**
 - Bilbo 1578
 - Donostia 1586
 - Gasteiz 1722
 - Iparraldean inprentarik ez. Euskal eremutik at lehen argitalpenak.

Bernart Etxepare (Sarrasketa, 1475)

1. Eiheralarreko erretore.

2. Donibane Garaziko bikario orokor.
3. Kartzelan izan zen.
4. Euskal Literaturak ezagutzen duen lehen liburuaren idazlea.
 - Liburuaren lehen edizioko ale bakarra Parisko Biblioteka Nazionalean gordetzen da.

Linguae Vasconum Primitiae (Bordele, 1545)

1. Garaziko **baxenafarreran** idatzia.
2. **Egitura**: 56 orrialde.

2.1 Bernart Leheteri eskainitako **gutuna**.

2.2 **15 poema** (kantatzeko sortuak, memorian gordetzeko).

- 2 poema gai erlijiosokoak.
- 10 poema amodiozko.
- Poema 1 kartzelaldiari buruz.
- 2 koplak euskara goraiatzeko.

3. **Helburua**

- “Bascoac bercec beçala duten (izan dezaten) bere lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco, solaz eguiteco, cantaceco eta denbora iragaiteco materia”

4. **Tematika**

4.1 “Contrapas” eta “Sautrela”: **Hizkuntzarekiko hausnarketa**.

4.2 poema erlijiosoak eta maitasunezkoak: Behe Erdi Aroan maitasuna ulertzeko eredu inguruan eraikita.

- **Emakume debekatua**.
- **Maitatzea = Zerbitzatzea**.

Erreformaren egunak

1. Erreforma protestantea, **arrazoiaren hobeste-giro hartan** eta zalantza sortzaile ziren pentsamolde haietan ulertu behar da
2. Lutero (1483-1546) / Kalbin (1509-1564)
 - Eliz esparruan humanismoak zabalduzko **zalantzak**
 - Erromaren aurkako jarrera nazionala
 - Erdi Aroko egoera larriari erantzuteko modu zehatz bat (gerrak, izurrite beltza, goseteak...)
3. **Indibidualismoa**, ez salbamen kolektiboa.
4. Fedearen bidezko salbazio eternala aldarrikatu zuten.
5. **Barne erlijioaren garrantzia**

5.1 hierarkiaren, zeremonien eta sainduen kultuaren gutxiespena.

5.2 Liburu sakratuak zuzenean irakurtzeko premia. Itzulpen-lana.

5.2.1 **Mintzaira xumeen goi-mailaratzea**

- Hizkuntz kodeen finkatzea
- alfabetizazioaren zabalkundea.

6 Eliz egitura guztia errotik deuseztatzeko arriskua

- Aita Sainduaren subiranotasun eta hierarkiaren ukazioa
- Ordena erlijiosoaren deuseztapena
- Elizaren ondasunak sekularizatuak, printzeei emanak

Albretoko Joana

1. **Nafarroako erregina** eta **Biarnoko anderea**
2. 1559an bihurtu zen **kalbindar** eta harekin erresuma osoa.
3. Errege-enperadore **espainarrekin aurzi politiko amaigabea**.
 - Espainiaren aurkako gerra guztiak galdu zituen Frantzisko I.aren iloba zen Joana erregina.
 - Nafarroako erresumaren hegoaldeko zatia kendu zitzaien.
4. **Noblezia gehiena** hasieratik **atxiki zitzaion Erreformari**.
5. **herri xehea** eta **apaizgoaren zati handi bat katoliko** mantendu ziren ahal zuten heinean.

Joanes Leizarraga (Beraskoitze, 1506-1601)

1. Apaiz katolikoa izanik, **kalbindar** bihurtu zen.
2. Eliza Erreformatuko ministro hautatu zuten.
3. Paueko sinodoak hainbat liburu euskaraz emateko enkargua luzatu zion.

Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria (Larroxela, 1571), Kalendrerera (Larroxela, 1571), Abc edo Christinoen instructionea (Larroxela, 1571)

1. Oso zainduak, landuak eta arreta handiz eginak
2. **Itzulpenak** dira.
3. Burututako lanaren oihartzunak, Iparraldeko mugak gainditu zituen.
4. **Nafarroako erresumak ordainduak eta babestuak**.
5. **erreforma sustatzea** eta hedatzea zuten helburu.
6. Azpimarratzekoa: **hizkuntzaren ikuspegitik burutu zuten lanaren izaera**

erraldoia.

- 6.1 Euskara kodetu gabeko hizkuntza
- 6.2 kasik tradizio idatzirik gabekoa

6.3 literatur **hizkuntza bateratu** bat eraikitzen saiatu ziren, **ahalik neutroena** eta **kultua aldi berean**.

- Iparraldeko euskalkietatik jasotako formak eta lexikoa.
- **Zubereraren eta baxenafarreraren kolorea zeraman *lapurtera*.**
- Leizarragak eraiki zuen hizkuntza kultista laster izango zen baztertua.

Joan Perez Lazarraga (Larrea, 1547- 1605)

1. Lazarraga dorreko jauna.
2. kargu publikoak izan zituen bere eskualdean
 - Erdoñako elizako maiordomo,
 - Barrundiako Ermandadeko alkate
 - Barrundiako prokuradore Arabako Batzar Nagusietan

Lazarragaren eskuizkribua (1567tik 1602ra bitarteko lanak)

1. 2004an aurkitu zuten Madrilgo zaharki-salerosle batean.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi zuen.
3. Hego Euskal Herriko literatur idazlan zaharrena
4. Egitura:
 - Artzain nobela
 - 21 kopla
 - Pleguak ez daude osorik
 - Gutxienez 16 orri galduta
5. Informazio berria euskalkien historia argitzeko
 - Hapaxak
 - Hitz askoren lehenengo lekukotasuna
 - Oso bakantzat genituen egiturak berresten dira
 - Beste inon agertzen ez ziren egiturak ageri dira
6. Bazterreko hizkeran idatzia
 - Bizkaieratik hurbil
 - Sakanako euskalkiarekin lotzen dituen ezaugarriak
 - Gipuzkeraren hainbat bereizgarri

Kontrarreformaren garroetan

1. 1545 Trentoko Kontzilioa. Erreforma Katolikoaren motorra.
2. aurretik ere

- Ordena erlijioso berrien eraketa. Loiolako Inazioaren Jesusen Lagundia.
 - inprenta-zentsura
 - Inkisizioaren indartzea
 - Bide ideologikoa eta politiko-militarra
3. Jendea “onbideratzeko” kultura eta hitza (ahozko eta idatzizko)
 - 3.1 Herriz herri fraide eta predikariak.
 - Predikazioak eta dramatizazio erlijiosoak
 - 3.2 Hezkuntza sistema hedatzearen garrantzia. Jesuiten ikastetxeak.
 4. komunitate katolikoaren trinkotze ideologiko-praktikoa.
 5. hierarkiaren beharra. Jainkoarenganako bidean ararteko
 - Herri-hizkuntzetan idatzitako Bibliaren debekua
 - Latinaren garrantzia
 - Mezak herri-hizkuntzetan ematea debekatu.
 - Konfesalekuaren asmakuntza
 - Ama Birjina eta Sainduen birbaloratzea.
 6. “Sorginen” aurkako errepresioa
 7. Apaiz humanisten jazarpen
 8. Kristau xume elebakarrarengana hurbiltzeko, tokian tokiko hizkuntzak.
 9. Egonkortasun sozio-politikoa.

Prosaren finkatze urteak

Estebe Materre. *Dotrina Christiana* (1617, Bordele)

1. Euskaldu berria
2. Parametro kontrarreformistetan argitaratzen den lehen liburua.
 - Sermoigintzako teknikak
 - Lapurtar idazleek erabiliko zuten hizkuntz ereduaren hautuaren meritua. Sarako hizkera.

Pedro Agerre Azpilkueta “Axular” (urdazubi ? –Sara 1644). Gero (Bordele 1643)

1. Sarako erretorea
2. Salamancan Teologia ikasketak
3. Lan aszetikoa
4. luzamendutan ibiltzeak eta eginbeharrekoak geroko uzteak egiten duen kalteaz

5. Gaiak, "gero" kontzeptuaren inguruan harilkatuak
6. 60 kapitulu
7. irakurlea konbentzitzeko idatzia.
8. sermoi egitura
 - Gaiaren aurkezpen laburra
 - Gaiaren garapen luzea
 - Bukaera laburbiltzaile eta mugiarazlea
9. erretorika klasikoaren baliabideetatik abiatzen da ahozkoaren baliabideak ezin hobeto baliaturik.
10. euskararen senaren arabera ehunduriko prosa erretorikoa. Lehena eta onena.

Bertsogintzatik poesiarentz

1. Etxeparetik zetorren bertso-formula hoskidea parametro gero eta landuagoen eredura hasiko zen garatzen.
2. Pragmatismo kontrarreformistaren lerroetan ere gero eta nabarmenagoa zen hizkuntzarekin jolasteko gogoia.
3. Bertsoa ez zen bakarrik mezu erlijioso zehatz batzuz zabaltzeko tresna.

3.1 Joanes Etxeberri ziburukoa (1580-?)

1. Teologian doktorea eta apaiza. Familia aberatsekoa
 2. Gai erlijiosozko hiru liburu.
 3. literatur tradizio kulturk gabeko bertsoak.
 4. arrakasta handia, edizio kopuru handia.
- *Manual devotioenezcoa* (Bordele, 1627)
 - *Noelac* (Bordele, 1631)
 - *Eliçara erabiltceco liburua* (Bordele, 1636)

3.2 Bernardo Gazteluzar (Ziburu 1619-1701)

1. Jesuita
 2. *Eguia Catholicac, salvamendu eternalaren equiteco necessario direnac* (Pau, 1686)
- Poemen tratamendu borobilagoa
 - Baliabide erretoriko-poetikoak
 - Elementu estetiko nabarmenkiro azpimarratzen da

- Ahozkoaren parametroekin lotura handia zuen “bertso” modu arrunt hura poesia bilakatzen hasi zen Gazteluzarrekin.

Arnaut Oihenart (Maule, 1592-1667)

1. Laikoa. Poesia erlijiosoarekin zerikusirik ez.
2. Poesia parametro estetikoetan
3. Obra gehiena frantsesez eta latinez

3.1 *L'art poétique basque* (1665ean Lapurdiko apaiz bati frantsesez zuzendutako gutuna)

- Lehen kritikaria euskal letren esparruan
- Sakonki ezagutzen zuen garaiko poesia europarra eta euskaraz argitaratzen zena
- Herri bertsogileekiko haustura.

3.2 *Atsotitzak eta Neurtitzak* (1567)

1. Atsotitzak: ahozko tradizioaren bitartez iritsitako herri jakituria
 2. Neurtitzak: eredu berriz ondutako poesia
- Zehazkiro neurtua
 - Joskidetasun aberatsekoa
 - Kontzeptualki tinkoa
 - Neologismoz betea
4. Ez zuen ez arrakastarik ez eraginik izan.